



Artikutzako ttanttak



Artikutza
Natura


Telefona: 690 720 264
www.donostia.eus/artikutza
artikutzanatura@donostia.eus

9

Zenbakia
2015eko Udaberria-uda



Azaleko argazkia: Jesus Rubio
Kontraazaleko argazkia: Margi Iturriza



Artikibidea

ELKARRIZKETA

Javier Rodríguez Pérez..... 4

HARITIK TIRA

Artikutza eredutzat..... 8

ARTIKUTZA IRUDITAN

Artikutza Pagolletatik..... 10-11

BILDUMARAKO

Ur zozoa (*Cinclus cinclus*) 12

BARRU BARRUTIK

Artikutzako berriak..... 13

ARGAZKI GALERIA



Ikarrizketa

Javier Rodríguez Pérez

Behaketarako dohainak, pazientzia eta ingurunearen eta espezieen historia naturalaren ezaguera ezinbestekoak dira ikerketarako, baina Artikutzan, horretaz guztiaz gain, eremuarekin eta meteorologiarekin borrokatu behar izaten da. Javier Balear Uharteetako Unibertsitatean doktoratu zen, uharteetako animalia eta landareen arteko erlazioak eta animaliek landaretzaren birsorkuntzan duten papera ikertuz. Orduetik, espezieen banaketa, habitatarekiko lotura eta aldaketa globaleko fenomenoek espezieen banaketan duten eragina izan dira bere ikerketaren ildo nagusiak. Urte bete baino gutxiago darama Euskadin bizitzen, baina 2015ean Artikutzako hegazti dibertsitatea ikertu eta hegaztien eta basoen arteko lotura hobeto ulertzeko abenturan murgildu da. Gaur egun, Aranzadi Zientzia Elkarte kide da Ornitologia sailean.



Pinu-kaskabeltz (*Parus ater*) Argazkia: Jesus Rubio

1. Donostiako Udalak Artikutzako GKLko bio-dibertsitatearen ezagueran eta balorazioan sakontzeko egindako deialdiari erantzunez ekin diozu ikertzeari, baina zer dela eta aukeratu dituzu hegaztiak zure ikerlanerako?

Galdera ona. Biologo gisa beti interesatu izan zaizkit hegaztiak, baina egia esan ez daramat denbora askorik hauek ikertzen. Euskadira etorri aurretik, Asturiasen egon nintzen fruituez elikatzen diren hegaztiak baso kantauriarren birsorkuntzan duten papera ikertzeko proiektu batean lanean. Eta Euskadira iritsitakoan, Aranzadiko Ornitologia sailarekin harremanetan jarri nintzen, Udalaren deialdia ikusi genuen, eta eskaera egin genuen Artikutzako hegaztien gai sakontzeko, gure ustetan hutsuneak baitaude alor horretan. Beraz, gauza batek bestea ekarri du.

2. Zerk deitu dizu arreta gehien Artikutzan? Zer nabarmenduko zenuke?

Artikutza ezagutzen ez dutenak etortzera animatuko nituzke. Donostiatik 30 km baino gutxiagora gaude (200.00 biztanleko hiria), eta harrigarria da hain ongi kontserbatutako eremu hain naturala topatzea. Bere 5 ibai arroek orografia malkartsua sortzen dute, eta hortaz, landaretza aldetik heterogeneotasun handiko tokia da. Horrela, aldapa handiko zonaldeak daude (gehienak), ehunka urte dituzten zuhaitzak ikus daitezkeen aldapa leunagoko eremuak, eta baita erribera basoak ere. Urteko edozein garai da ona Artikutzako naturaz gozatzeko, baina toki batzuetatik ibiltzeko sasoian egon beharra dago.



3. Identifikazioari dagokionez, erraza al da hegaztiak behatzea, edo kantuen bitartez identifikatzen dituzu batez ere?

Artikutza bezalako baso eremu batean ez da erraza hegaztiak ikustea, beraz, entzumen bidezko identifikazioa oso garrantzitsua da. Askotan, gainera, begi bistaz oso antzekoak diren bi hegazti ezberdintzeko kantuetan oinarritu beharra dago. Adibidez, Artikutzan badaude bi gerri-txori mota, oso antzekoak, kantuen bidez erraz ezberdindu daitezkeenak.

4. Badakigu neguko eta udaberri hasierako eguraldia ez dela bereziki ona izan, eta meteorologia mesedegarria edo kaltegarria suerta daiteke. Zure kasuan, honek eraginik izango al du lortzea espero duzun emaitzetan?

Hasiera batean meteorologiak organismoen fenologian, hau da, bizi zikloen eta faktore klimatikoen arteko erlazioan, eragina du. Badirudi aurtengo eguraldiaren eraginez atzerapena nabaritzen dela. Hori jakiteko, lehen hostoak ateratzen hasten diren garaia edo kukuaren lehen kantua entzuten den garaia urtez urte konpara daitezke. Urte hauetan organismoen bizi zikloa atzeratzen ari bada ere, hegaztien eta hauen habitataren arteko asoziazioan ez luke aldaketarik eragin behar, hegazti hauetako asko sedentarioak baitira. Ikerketari dagokionez, hegaztien erroldak egiteko beharrezkoak dira baldintza meteorologiko onak (behe lainorik gabe, euri gehiegirik gabe), meteorologiak euren aktibitatean eragin ez dezan eta ikerketaren emaitzak esanguratsuak izan daitezzen.



Basoetako gerri-txoria (*Certhia familiaris*) Argazkia: Wikimedia commons; (c) Peter Mulligan



Gerri-txori arrunta (*Certhia brachydactyla*) Argazkia: Wikimedia commons; (c) Aleph

5. Artikutzan pagadia da nagusi, baina antzeman al daitezke ezberdintasunak hegaztiengan baso misto batean eta ehunka urteko pagoz osatutako baso batean?

Esan bezala, oraindik ez dut informazio askorik Artikutzan gertatzen denari buruz, baina esan dezaket zer espero den aurkitzea. Orokorrean, basoen adinak ingurune aniztasuna eta eskuragarritasuna zehazten du, eta honek era berean, basoko hegaztiak baldintzatzen ditu. Adibidez, zuloak, hildako zuhaitzak, eroritako egurra eta/edo zuhaixkak toki aproposa dira hegaztiak babesteko, habia egiteko edo elikatzeko. Ingurune mota ezberdinak dituzten basoak hegazti espezieetan anitzagoak izatea espero bada ere, hegazti espezie bakoitzaren presentzia zehazten duten inguruneak zeintzuk diren aztertu beharko da, eta ea ehunka urteko pago eta haritzez osatutako basoak ote diren ingurune dibertsitate handiena duten eremuak.



Ehun urtetik gorako pagoa Argazkia: Margi Iturriza



Karnaba (*Carduelis carduelis*) Argazkia: Jesus Rubio



Uda-txirta (*Anthus trivialis*) Argazkia: Margi Iturriza

6. Ondo ulertu badugu, baso motak nolabait hegazti mota baldintzatzen du? Hau galdetzea, lehenago oiloa edo arrautza izan ote zen galdetzea bezala al da?

Bai, egia da. Txanponaren bi aldeak dira. Lehen esan bezala, espero daitekeena da baso motak baldintzatzea hegazti mota, baso bakoitzean eskuragarri dauden baliabideen arabera. Baina bestalde, hegaztiak gai dira landaretza baldintzatzeko eta basoak sortzeko. Batez ere udazkenean, landare askok fruitu mamitsuak ematen dituztenean, hegaztiak hauek jan eta zuhaitz eta zuhaixken haziak barreiatzen dituzte, eremu degradatuak birkolonizatuz. Hau da urteetan ikertzen egon naizen gaia, eta hegaztien kontserbazioaren garrantziaren eta hauek habitat naturalak errekuperatzeko duten ahalmenaren adibide da.

7. Ondorioen bat ateratzeko goiz bada ere, ikerketaren lehen fase honetan ba al dago deigarria suertatu zaizun zerbait?


Udaberrian zehar informazioa biltzeko landa lana egiten ariko naiz, hortaz, oraingoz inpresioen berri besterik ezin dizuet kontatu. Eremua hobeto ezagutzeko eta hegaztien laginketak antolatuz, Artikutza guztian zehar ibiltzea garrantzitsua iruditu zitzaidan, eta martxoan horretan aritu naiz. Beraz, orain Artikutzako baso aberastasuna ezagutzen dut gutxi gorabehera: hariztiak eguteren eta aldapa askoko eremue-



Amilotx urdin (*Cyanistes caeruleus*) Argazkia: Jesus Rubio



Okil beltz (*Dryocopus martius*) Argazkia: Jesus Rubio



Garrapo (*Sitta europaea*) Argazkia: Jesus Rubio

tan, ehunka urteko pago eta haritzak eta baso landaketetako pinudi zaharrak adibidez. Nire ustez denak dira garrantzitsuak eta hegaztien presentzia baldintzatzeko dute seguruenik. Orain arteko nire ibilaldietan okilen errolda egin eta Artikutzan duten banaketa ezagutzeko aprobetxatu dut. Ikusi dut esaterako, okil handia (*Dendrocopos major*) birlandatutako pinudiei lotuta azaltzen dela, eta okil beltza (*Dryocopus martius*), aldiz, pagadi nahiz pinudietan. Orain arte lau okil espeziaren presentziak jabetu banaiz ere, Artikutzan baldintza ezin hobek ematen dira Iberiar Penintsula osoan oso mehatxatuta dauden okil ertaina (*D. medius*) eta/edo okil gibelnabarra (*D. leucotos*) agertzeko. Ea topatzen ditugun!

h aritik tira




Argazkia: Margi Ituriza

Artikutza eredutzat

Ekainaren 23tik 26ra bitartean Bilbon ospatuko da “Lurzoruen Degradazio eta Berreskuratzearen Kontrolari buruzko VII. Sinposio Nazionala”. Zehazki 24an Artikutza bisitatuko dute kaltetutako lurren berreskuratzea posible dela adierazteko eredu izan baitaiteke; izan ere duela ia 100 urteko Artikutzak eta gaur egungoak, zerikusi gutxi baitute.

Artikutzan ohikoa zen abeltzain, meatzari, ikazkin, egurgile eta olagizonen presentzia; baliabide naturalen ustiaketan oinarritutako lanbideak guztiak. XIII. mendean, idatziz Artikutza aipatzen den lehen aldian, jabegoa Orreagako Santa Maria Kolegiatak zuen, baina ziurrenik aurretik ere, lanbide hauek guztiak arruntak izango ziren bertan.

Baso ustiaketa nabarmena da lepatutako pago zaharretan, eta pago adar horien egurrekin eraikitako txondorren lekuko diren lurrean antzematen diren txondor plazetan. Hala ere, burdin, kaolin eta kobrea bezalako mineralen ustiaketan lurrek jasandako zauri handiak, ez dira hain agerikoak; hein handi batean duela ia 100 urte bukatu zirelako erauzketa-rako praktikak eta bestalde goroldio, huntz eta iraun zuten zuhaitz gutxien ernamuinak hondatutakoa esaltzeaz arduratu direlako.



Argazkia: Margi Ituriza

Berreskuratzea XX. mendearen lehen urtetan hasi zen, Artikutzako ekoizpen iturria aldatu zen unetik aurrera. Udalak kalitatezko ura eta ugaria nahi zuen eta interes hauek ez zetozen ordura arte izandako interesekin bat. Ordura arteko ustiapenak ere beherakada jasaten ari ziren errentagarritasun eskasa zela medio. Meatzetako lanak eta ganaduak mendeetan zehar lurrean eragindako kalte sakonak, landaketen bidez konpondu behar izan zituzten, baina helburu argi batekin: ura ahalik eta baldintza onenetan bildu eta 1902. urtean gertatutako sukarrak tifoideen izurritearen antzerakorik ez gertatzea. Malda zakar eta euri kopuru handiko eremu honetan higadura ekiditeko, biluztutako lurra estaltzea beharrezkoa zen. Azpiegitura berriak eraiki behar ziren ur edangarria eta goreneko kalitatezkoa lortzeko: iturburuetatik zuzenean jasotzeko arketak eta hodiak, ubideak, presak eta urtegia bera.

Gaur egun Artikutzak duen interesa baso ekosistema desberdinen mantenuan eta kontserbazioan datza eta baita urari lotutako ekosistemen berreskuratzean ere. Duela ia 100 urtez aurrera emandako ekintzak eredu interesgarria izan daitezke egoera txarrean dauden beste leku batzuk berreskuratzea ahalbidetzeko.



2015

Lurzoruen Nazioarteko Urtea

NBE (Nazio Batuen Erakundeak) Elikadura eta Nekazaritzarako erakundearen bitartez (FAO) 2015 Lurzoruen Nazioarteko Urtea izendatu du. Helburua hauxe: lurzoruek ekosistemen oinarritzko funtzioetan eta elikagaien segurtasunean duten garrantziaz ulermena zabaldu eta kontzientzia hartzea.

Argazkia: Margi Ituriza





Artikutzako argazki panoramikoa, Pagolletatik Argazkia: Margi Iturriza

Bilduma fitxa

Ur zozoa *Cinclus cinclus*


Izen arruntari erreparatzen badiozu, erraz asmatuko duzu hegazti txiki honen habitata. 18cm-ko altuera eta 30 cm inguruko hego-zabalera baino ez du izaten, ur-lasterreko errekek gogoko dituen txoritxo honek. Ondo oxigenatutako ura duten erreketan murgilduz eta mokoarekin harriak irauliz bilatzen du bere janari gogokoena: intsektu, muskuilu eta krustazeo txikiak. Urpean igerian egiteko hegoak erabiltzen ditu eta bere hanka indartsuek, hondotik, korrontearen aurka ibiltzea ahalbidetzen diote.

Habia, trinko eta itxia, goroldioz eta belar finez eraikitzen du, ur azaletik oso gertu, ibai gainetik airean gelditzen diren zuhaitzetan, arroken tarteko zirrikietan edo zubi azpitan. Habiaren eraikuntzan arrak eta emeak parte hartzen badute ere, emea da errunaldiaz arduratzen dena. Urtearen arabera, birritan eman daiteke errunaldia otsaila eta ekaina bitarte.



Banaketa mapa

Ur zozoa ibaien ur kalitatearen adierazle ona da, izan ere, gizakiaren arrastorik gabeko ibaiak edo eragin minimoa izan dutenak behar baititu. Urtegiek, ubideek eta batez ere kutsadurak hegazti hauen bizitza arriskuan jartzen dute eta bere banaketa baldintzatu ere. Nafarroan interes bereziko espezieztat daukate. Oso espezie lurraldekoa da, ibai kilometroko bikote bat aurkitu daiteke. Artikutzan erreken ibilguko harriren baten gainean topa dezakezu zortea izanez gero, uretan murgildu eta zure begi bistatik edozein momentutan alde egiteko prest.



Urpekari betaurrekoak ditu! Hirugarren betazal garden moduko mintza, mintz niktitante deritzona. Begia kiiskatzekoan, betazal zuria duela dirudi.

Mugitzeko eragatik txepetxa handi bat dirudi, baina bi sexuek duten papar zuriak, nahastezinak egiten ditu.

Ur zozoa Argazkia: Agustín Povedano

Arro barrutik

Argazkiak: Iñaki Uranga eta Margi Iturriza

NATUR ESKOLA ARTIKUTZAN

Udaberriak animatzen ditu batik bat Ikastetxeak, Artikutzako Natur Eskolak antolatutako ekintzetan parte hartzera. Donostiatik zein Gipuzkoako inguruko herritatik izango dira hilabete hauetan zehar gure artean izango ditugun ikasle eta irakasleak. Adin desberdinetako gaztetxoek egun bat edo bi naturan eta lagun artean igarotzeko aukera ezin hobea izango dute.



BIOANIZTASUNA IKERGAI

Buletin honetan elkarrizketatutako adituak 2014-2015 Artikutzako bioaniztasuna ezagutzera emateko ikerketa bekari buruz hitz egin digu. 2015-2016 ikasturtekoa ere abian da eta maiatzaren 27ra bitartean aurkeztu daitezke proiektuak.



EKAINEAN, AUTOBUSEZ ARTIKUTZARA

Autorik ez baduzu eta hori izan bada orain arte Artikutzara etorri ez izanaren arrazoia, bukatu zaizkizu aitzakiak! Ekainaren 7an Donostiatik autobusez etortzeko aukera izango duzu. Animatu zaitetz!, goiz pasa polita egingo dugu Artikutzako basoetatik eta auzo ingurutik.



EURIA EZ DA DENON GUSTURA INOIZ IZATEN

Aurtengo otsailean euri kopuru itzela jaso da Artikutzan. 81 urtetan hilabete honetan zehar jasotako bataz bestekoa 219,7 mm izan bada, aurtun 736,9 mm jaso ditugu. Eragina nabarmena izan da zenbait lekutan, batez ere malda handiak eta mehatzetako ustiapenaren ondorioz ondo egonkortu gabeko mendi mazeletan.



GOIZUETATIK ARTIKUTZARA

Goizuetako udalarekin batera bi bide berrien seinaleztapenak adostu dira: Artikutzako burdinolak de-ritzona eta Goizuetatik Artikutzara joateko 28km-ko mendi ibilbidea. Goizarin eta Elamako burdinolen aurien inguruan, XIX. mendera arte martxan egon ziren 2 lantegi hauen inguruko informazioa jasotzen duen panelak jarri dira.




PELIKULA BERRI BAT ARTIKUTZAN

Ez harritu "corten" edo "acción" edo ingelesez hitz egiten entzuten baduzu basotik zoazela; pelikula baten errodajea hastera doa eta. AEBko Mendi Harritsuetan gertatuko den historiaren garapenerako, han topa daitezkeen txabolen antzeko bat eraiki dute filmaketarako. Hurrengo zenbakian xehetasun gehiago eta argazkiak erakutsiko dizkizuegu.



Argazki galeria

Artikutzan atera duzun argazki polit edo bitxi bat hemen argitaratua ikusi nahi baduzu, bidali helbide honetara: artikutzanatura@donostia.eus. Argazkiarekin batera zure izen - abizenak, ateratako lekuaren izena, data eta argazkiaren izenburua jar itzazu.



Artikutzako Ttanttak buletina jaso nahi baduzu bidali zure datuak (Izen abizenak, helbide elektronikoa) artikutzanatura@donostia.eus helbidera eta posta elektroniko bidez jasoko duzu.

